

CRISPR teknika pertsonetan probatu dute lehenengoz

[Genoma editatzeko CRISPR teknika](#) pertsona bati aplikatu diote Txinako ikertzaile batzuek, biriketako minbizia tratatzeko. Teknika hori pertsonetan erabiltzen den lehenengo aldia da.



ARG.: STEPHEN DIXON, FENG ZHANG

Gaixoaren odoletik erauzitako T linfozitoetan gene bat ezgaitu dute CRISPR teknikarekin. PD-1 geneak, hain zuzen, linfozitoek erantzun immunologikoa ematea oztopatzen du, eta, hain zuzen ere, hori baliatzen dute minbizizelulek ugaltzeko. Hortaz, PD-1 generik gabeko zelulak ugaritu eta berriz sartu dizkiote gaixoari. Espero dute PD-1 generik gabe, linfozitoek minbizi-zelulei erasoko dietela, eta, hala minbiziari aurre egiteko gai izango direla.

Teknika hori pertsonetan erabiltzen den lehenengo aldia izan da, baina, genetikoki eraldatutako T linfozitoak seguruak direla ziurtatuta, laster etorriko dira gehiago. Esaterako, aurreikusita dago hiru gene editatuz saio kliniko bat egitea AEBn, hurrengo urtearen hasieran, hainbat minbizi tratatzeko asmoz. Eta Txinan beste hiru saio jarri nahi dituzte martxan maskuriko, prostatako eta giltzurrunetako minbiziak tratatzeko. ●

Materia organikoa ugaritzeak arrainetan merkurio toxikoa metatzea dakar

Ur-ekosistemetako materia organikoa areagotzeak zooplanktonean merkurio toxikoa zazpi aldiz gehiago metatzea dakar. Suedian egindako ikerketa baten arabera, aldaketa klimatikoak eragindako euriteek ekartzen duten materia organikoaren eraginez, argi gutxiago iristen da ur barrenera. Hala, kate trofikoak autotrofoa izatetik nagusiki heterotrofoa izatera pasatzen da; hau da, zooplanktona, zeina materia organikoz elikatzen baita, nagusi bihurtzen da. Ikertzaileen ustez, kate trofiko heterotrofoan merkurio-metaketa handitzen



Arrainak. ARG. CREATIVE COMMONS.


joaten da, guk jaten ditugun arrainengana iritsi arte. Emaitza horiek erakusten dute, beraz, aldaketa klimatikoak eragina duela arraine-

tan gertatzen den merkurio-metaketan. *Science Advances* aldizkarian argitaratu da ikerketa. ●

Grafenoari porfirinak gehituta, haren ezaugarriak hobetzea lortu dute

Municheko Unibertsitate Teknikoko ikertzaile-talde batek [grafeno-xaflei](#) porfirinak batzea lortu du, alegia, klorofilaren eta hemoglobinarenekin parte diren eraztun proteikoak. Egitura hibrido berri horiek oso erabilgarriak izan litezke elektronika molekularra-

ren arloan, non zirkuitu elektronikokoak molekula-unitatez osatuta baitaude, baita erreakzio kimiko asko azeleratzen dituzten prozesu katalitiko ugarian eta gasen sentzore berrien garapenean ere. ●



Porfirinak lotu dizkiote grafenoari, haren ezaugarriak hobetzeko. ARG.: YUANQIN HE/MUNICHEKO UNIBERTSITATE TEKNIKOKA.

